


Osasun Eskualde Oinarritzkoa


Altsasu / Alsasua



Observatorio de Salud Pública de Navarra
Nafarroako Osasun Publikoaren Behatokia



Fuente: SITNA-ISPLN



1. Argibide orokorrak

	Eskualdeko balioa	Nafarroa
Biztanleria (2023):	9.423 Emak.: %49,5 Giz.: %50,5	672.155 %49,5 %50,5
Batez besteko adina:	Emak.: 46,2 Giz.: 44,4	46,3 43,2
Ugalkortasun-tasa:	%61,3	-
Gazteen mendekotasunaren indizea:	% 23,3	%24,7
Zahartzaroko mendekotasun indizea:	%34,5	%32,0
Gainzahartzea:	%17,7	%17,2
Atzerritan jaiotako biztanleak:	%14,9	%17,9
Bizi itxaropena:	Emak.: 86,6 Giz.: 80,5	86,8 81,3
Biztanleria-densitate:	154,9 biz.km ²	68,9 biz.km ²
Zabalera:	60,81 km ²	9758,6 km ²
Zer Eskualdetakoa den:	Nafarroa Atlantikoa (ikus mapa)	
Udalerriak:	Altsasu/Alsasua, Ziordia, Olazti/Olazagutia	

2. Komunitatea eta osasuna

Faktore soziodemografikoak eta ingurumenekoak. Altsasuko osasun-eskualde oinarritzkoan, beste eskualdeekin alderatuta, gutxi dira 20 urtetik beherako ama duten jaioberriak (%0,0), diru-sarreraren desberdintasuneko Gini indizea txikia da (%27,9), eta baso-azalera, handia (%64,7). Aldiz, bakarrik bizi diren 80

urte edo gehiagoko emakumezkoen etheen ehunekoa (%44,9) eta langabezia-tasa (%12,6) handiak dira.


Osasunari dagozkion emaitzak. Altsasuko osasun-eskualde oinarritzkoan 3 patologia kroniko edo gehiago dituzten emakumeak ez dira ugari (%4,2), eta datu horretan eskualdeen laurden hoberenean dago. Hala ere, emaitza txarrak ditu datu hauetan: 2 motako diabetesa diagnostikaturik dutenen prebalentzia (emakumeen %6,9 eta gizonen %9,7), HbA1c-ren neurketa duten diabetikoak (%75,5) eta TA-ren neurketa duten hipertentsoak (%40,5).

Inkesta-adierazleak. Hurrengo emaitza doitu* hauek Nafarroa Atlantikoa-Pirinioak eskualdeari dagozkio (LAP zonifikazioa); Altsasuko eskualde oinarritzkoa zona horretan dago. Nafarroa Atlantikoa-Pirinioek emaitzarik onena dute zenbait adierazletan: frutak eta barazkiak egunero jatea (emakumeek: %37,1) eta tabakoa egunero erretzea (%16,8). Aitzitik, emaitzarik txarrenea du lau adierazletan: bizimodu sedentarioa izatea (emakumeek: %32,1), gehiegizko pisua izatea (15 urteko edo gehiagoko emakumeek: %44,0), alkohola astero edatea (emakumeek: %11,8) eta ongizate txikia izatea oro har (emakumeek: %35,2).

***Oharra:** Inkesta-adierazleak eta hala eskatzen duten beste adierazle batzuk sexuaren eta adinaren arabera doitu dira, eskualdeen arteko konparazioa egin ahal izateko. Adierazle gordinak hurrengo orrialdearen behealdean agertzen dira.

3. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira adierazle sorta bati dagozkion eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoarekin alderaturik (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarritzkoen multzo osoarekin alderaturik. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero, haien [banakako fitxak](#) ikus daitezke Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1: Biztan. Mug. Nat.; 2, 6-7: SIPNa (Nafarroako Biztanleriaren Sistema Integratua); 3: Biztan. Akt. Ud. Est.; 4-5: Errenta. Est.; 8: SIGPAC (Nekazaritzako Lurzatiaren Informazio Geografikoko Sistema); 10, 24-27, 30-31: Oinarritzko osasun-laguntza; 10-21: ESyCV (Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkesta); 22-23: NOPLOI; 28-29: Farmazia prestazioa

Nafarroa Atlantikoaren adierazleak (10-21) LAP zonifikazioa (NASTAT). Irudian adierazitako balioen kopurua: 4.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzarekin alderatuz (bizimoduaren, morbiditatearen eta osasun sistemaren adierazleentzako eginiko kontrastea).

1. Urteko batez besteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14 eta 19 urte bitarteko emakumeetan; **2.** DBHko graduatu-titulurik edo haren baliokiderik gabeko 18tik 24 urtera arteko gazteen %; **3.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean; **4.** Bizikideen errentaren baturak pobrezia larriaren atalasetik behera egiten duen etxeetan bizi diren pertsonen %; **5.** Diru-sarreraren desberdintasunaren Gini indizea, datu baxuagoak berdintasun handiagoa adierazten du; **6 eta 7.** Bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko pertsonen %, adin horretan familia-etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **8.** Baso-azalaren %; **9.** 170-190 egunetara soilik amagandik edoskitzen duten haurrak %; **10 eta 11.** Frutak eta barazkiak egunero jaten dituzten pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 38,9 eta gizonak 25); **12 eta 13.** 15 urteko edo gehiagoko sedentarioen % doituia: ariketarik egiten ez dutela diote (t. gordina: emakumeak 31,5 eta gizonak 23,1); **14 eta 15.** Astean 100 g alkohol baino gehiago hartzen dutenen % doituia (t. gordina: emakumeak 10,8 eta gizonak 24,9); **16 eta 17.** Tabakoa egunero hartzen duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 12,9 eta gizonak 15,3); **18 eta 19.** Ongizate orokor baxua duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 33,3 eta gizonak 17,2); **20 eta 21.** Pisu gehiegi, gehiegizko pisua edo obesitatea duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 45,4 eta gizonak 58,4); **22 eta 23.** Pisu gehiegi -gehiagizko pisua edo obesitatea duten- 6tik 9 urtera arteko haurren prebalentzia doituia, OMEK haurren hazkuntzarako emaniko ereduaren arabera (t. gordina: emakumeak 29,9 eta gizonak 28,8); **24 eta 25.** 2 motako diabetesa duten 20 urte edo gehiagoko pertsonen prebalentzia doituia (t. gordina: emakumeak 8,1 eta gizonak 10,4); **26 eta 27.** 3 patologia edo gehiago dituzten 65 urteko edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 6,3 eta gizonak 12,2); **28 eta 29.** Azken urtean, multzo hauetako bateko 3 ontzi edo gehiago hartu dituzten pertsonen % doituia: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (t. gordina: emakumeak 18,3 eta gizonak 8,5); **30.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua (HbA1c-a) neurtu duen biztanleriaren %; **31.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala (TA) neurtu zaien biztanleriaren %.